EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Dokumentu mota / Tipo de documento: ERDIBIDEKO ZUZENKETA
Nori zuzendua / Dirigido a: LEGEBILTZARREKO MAHAIA

Proposatzailea / Proponente:

Talde parlamentarioa / Grupo Parlamentario:
Data / Fecha: 2023.03.23

Espediente zenbakia / Número de expediente: 12/11/03/00/00150
Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan gutxieneko soldatak duintasunez bizitzeko aukera bermatzeari buruz//Relativa a que el salario mínimo garantice la oportunidad para vivir con dignidad en Álava, Bizkaia y Gipuzkoa

Eusko Legebiltzarrak:

1.- Lanbide arteko gutxieneko soldataren igoeraren garrantzia aitortzen du, Euskadiko 50.000 langileri baino gehiagori mesede egiten baitie zuzenean.

2.- Nolanahi ere, gure errealitate sozioekonomikoa kontuan hartuta, eta betiere negoziazio kolektiboa errespetatuz, komenigarritzat jotzen du sindikatuek eta patronalak Lanbide arteko Akordioaren esparruan Euskadin negoziazio kolektiboko gutxieneko soldata bat adostea, Euskadiko errealitate sozioekonomikoan oinarrituta.

3.- Kalitatezko enpleguaren aldeko konpromisoa berretsiz, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrera proaktiboa izaten jarrai dezala konpromiso horretan aurrera egiteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko eta, horrekin batera, enplegu-esparru guztietan eta elkarrizketa sozialean Euskadiko langileen soldatak eta lan-baldintzak hobetzea defendatu eta sustatzeko.

4.-Ildo horretan, eta zehazki, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultza dezala, betiere gizarte-eragileen autonomia

El Parlamento Vasco:

1.-Reconoce la importancia del incremento del Salario Mínimo Interprofesional, que beneficia directamente a más de 50.000 trabajadores y trabajadoras de Euskadi.

2.-En cualquier caso, habida cuenta de nuestra realidad socioeconómica, y siempre desde el respeto a la negociación colectiva, manifiesta la conveniencia de que sindicatos y patronal acuerden en el marco del Acuerdo Interprofesional un salario mínimo de negociación colectiva en Euskadi en base a la realidad socieconómica del País Vasco.

3.-Ratificando su compromiso por el empleo de calidad, insta al Gobierno Vasco a continuar adoptando una actitud proactiva para la adopción de las medidas necesarias para avanzar en este compromiso y, con ello, defender y fomentar en todos los marcos de empleo y diálogo social la mejora de los salarios y de las condiciones laborales de los/as trabajadores/as de Euskadi.

4.-En este sentido, y en concreto, insta al Gobierno Vasco a impulsar, siempre desde

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

errespetatuz, Lanbide arteko Akordioak Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate sozioekonomikoarekin bat datorren negoziazio kolektiboko gutxieneko soldata jasotzea.

el respeto a la autonomía de los agentes sociales, que el Acuerdo Interprofesional recoja un salario mínimo de negociación colectiva que se corresponda con la realidad socioeconómica del País Vasco.